



SEXU-ETA GENERO-
ANIZTASUNETIK ESKUBIDE
SEXUAL EZ NORMATIBOAK
ERAIKITZEN

SEXU-ETA GENERO- ANIZTASUNETIK ESKUBIDE SEXUAL EZ NORMATIBOAK ERAIKITZEN

IDEIA ETA KOORDINAZIOA:



Berastegi, 5-5º Bilbao 48001
Tel. 944237296 - 665 73 44 28
www.aldarte.org
<https://kooperaldarte.org/es/>



@AldarteOrg



Aldarte Zentroa-Centro

DATA: 2019ko Ekaina

ARGITARATZAILEA: ALDARTE

MAKETAZIOA, ILUSTRAZIOA ETA DISEINU GRAFIKOÀ: Ana Amador Méndez eta Juan Molina Ortega

Inprimaketa Lankopi.

Lege erregistroa: BI-1030-2019

LAGUNTZAILEA:



Testua eta irudiak ALDARTE zentroari dagozkio. Edozein erabilera edota baliatzea, espreski Aldartek baimendu behar du.



1 ASKATASUN SEXUALA IZATEKO ESKUBIDEA

Esanahia: Pertsonak euren desirak eta generoak askatasunez adierazteko aukera izatea da.

Jean Marie. Senegal. 31 urte.

“Egoera tamalgarria zen, ingurua gure aurka baitzegoen. Espetxeratu gintuzten. Espetxetik irtetean, ihes egitea erabaki genuen. Nire bikotekidea, itsasarte gurutzatzen saiatzean, hil egin zen”




2 GORPUTZAREN AUTONOMIA ETA SEGURTASUN SEXUALERAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Geure gorputzaren, desiren edota generoaren gaineko erabaki autonomoak hartzeko ahalmena da.

Lidia. Barakaldo. 54 urte.

“Nire mugikortasunarekin nire gorputzeko atal batzuetara iritsi ezin naizen arren, sexuarekin edonora iritsi naiteke”



3

PRIBATUTASUN SEXUALERAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Berezko intimitatearen gainean erabakiak hartzeko eta, horri dagokionez, nahi dena egin ahal izateko eskubidea bermatzean datza.

Maisha. Nikaragua. 42 urte.

“Nire amari, hilero, dirua bidaltzen diot. Lanean ez dut asko irabazten. Hona heldu nintzenetik, logela bat partekatzen dut bizilekua izan ahal izateko”



4 PAREKIDETASUN SEXUALERAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Praktika sexual onen eta txarren arteko balioespena egiterako orduan, pertsonok ditugun hierarkia guztien hausturen eta diskriminazio ezaren inguruan dihardu.

Jairo. Bilbo. 27 urte.

“Nire jarduneko okerrena bezeroen mespretxua nabaritzea da eta, are gehiago, lanbide mota ezin aipatzea”



5 PLAZER SEXUALERAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Nahi den moduan, lekuan zein momentuan eta nahi den edota nahi diren pertsona guztiekin.

Mikel eta Jon. Iruñea. 62 eta 69 urte.

“Giroko bikote zaharrena gara. 33 urte batera daramatzagu. Elkarrekin asko gozaten dugu”




6 EMOZIOZKO SEXU ADIERAZPENERAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Ekintza sexualen plazera baino gehiago da adierazpen sexuala. Pertsona bakoitzak bere sexualitatea nahi dituen afektu, kontaktu edota adierazpenen bitartez azaltzeko aukera du.

Alicia. Gasteiz. 18 urte.

“Jendeak sinesten du transa izateagatik nire gorputza ezin zaidala gustatu. Inork ez du imajinatzen zenbat gozatzen dudan bikote sexualak izaten eta masturbatzen”

AUZO ELKARTEA



7 SEXU ASOZIAZIO ASKERAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Asoziazio askerako eskubidea, jendarte talde batera atxikitzeko edota parte sentitzeko aukera izateko eskubidea da; hau da: ezkontzea erabakitzen duen talde bateko parte izatea edo ez erabakitzeko, norekin batzen zaren aukeratzeko edo antolatzen zaren edo ez erabakitzeko.

Colectivo VIOLETA. Honduras.

“Taldearen nortasun juridikoa lortzea ikaragarri zaila da. Estatuak eragozpen asko jartzen ditu; esaterako, diru kopuru handia balio duten lege prozedurak betetzea eskatzen digu eta hori guretzat ia ezinezkoa da, ez baitugu diru kopuru hori”

UGALTZEARI BURUZKO ERABAKIAK MODU LIBRE ETA ARDURATSUAN HARTZEKO ESKUBIDEA

Esanahia: Guraso izan nahi duzun edo ez eta noiz izan nahi duzun erabakitzeko, nahiz zaintza lanak norekin partekatu nahi dituzun aukeratzeko ahalmena da.

Aigor. Arrasate-Georgia. 21 urte.

“Aita izateko ilusio handia dut eta hormonak hartzeko prozesua denbora tarte batean gelditzeko prest nago; horrela, erditzeko eta titia emateko gai izango naiz”






8 EZAGUTZA ZIENTIFIKOAN OINARRITUTAKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA

Esanahia: Jakintza “zientifikoak” diziplina anitzetan eta etikan oinarrituta egon behar du. Era berean, modu egokian hedatu behar da eta pertsoneri egokitu behar zaie.

Begoña. Durango. 36 urte.

“Nire alabari blokeatzaile hormonalak emateko esan didate, eta, gerora, hormonak. Ama izateko aukera galtzearen eta antzu geratzearen esanahia benetan ulertu al dezake nire 10 urteko alaba transak?”



10 SEXU HEZKUNTZA INTEGRALERAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Instituzio sozial guztietan, sexu eta genero aniztasunaren inguruko heziketa jasotzeko eskubidea da. Formazio horrek adinak, kulturak edota erlijioak errespetatu behar ditu.

Malec. Agurain-Guinea. 35 urte.

“Nire ikastetxea katolikoa da. Urtero, emango ditugun edukiak planifikatzerako orduan, sexu eta genero aniztasuna jorratzen duen programa txertatzen saiatzen naiz, baina, urtero, hura lantzeari uko egiten diote”



Osakidetza

11

SEXU OSASUNA BERMATZEN DUEN ARRETARAKO ESKUBIDEA

Esanahia: Pertsona orok osasun sexueralako prebentzio eta arretarako eskubidea du; hori dela eta, baliabidetara heltzeko neurriak hartu behar dira eta aukera horiek bermatu.

Mugarik gabeko medikuak.

“Afrikako lurraldean, hiesa garatu dutenen artean, %30 eta %40 arteko hiltze-tasa dago”

GIB-HIESA.

Euskadin, pertsona seropositiboek tratamendua eskuratzeko aukera dutenez, ez dute gaixotasuna garatzen eta ez dira hiltzen

SEXU-ETA GENERO- ANIZTASUNETIK ESKUBIDE SEXUAL EZ NORMATIBOAK ERAIKITZEN

